



# URKIZUKO BAZKARIAN 110 LAGUN MAHAIAN

Tolosako auzoan Alurtxiki elkartearen hirugarren urteurrena ospatu dute paella eta txuletaren laguntzaz >7

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Igandea  
2010-09-26

VIII. URTEA 2.084. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Zurrunmuru antzerki taldearen emanaldia, atzo. I. TERRADILLOS



Haurrak jolasean ibili ziren bitartean helduak dantzan aritu ziren. I. TERRADILLOS/E. MAIZ

## Kultur Astearen azken egunean azoka jarriko dute Goiazko plazan

**BIDEGOIAN** Marrazki lehiaketan 43 gaztek hartu dute parte; ondoren antzerkira joan dira €

## IRURA ETA ALDABA FESTA GIROAN AURKITZEN DIRA

**JAIAK** Iruran herri kirolak eta bertsolariak egongo dira gaur; Aldaban III. Txirringulari Igoera Herrikoia txanda izango da 4


## Guardia Zibilak bi lagun eraman ditu kontrol batean

**VILLABONA** Autobusean zihoazen gizonetako eta emakumezkoa AAMren arabera 7

UNAI ONSALO PILOTARIA

«Nola egongo naizen jakin gabe noa Munduko Txapelketara»

**ARESO** Urriaren 1etik 10era Frantziako Pauen jokatu den lehiaren egongo da pilotari gaztea 5



JONE GOROSTARZU

TARTALO DENDA **IREKITA**  
Eskeintzak!!  
Iraila / urria 2010  
Osteguna ostirala larunbata

16	17	18
23	24	25
30	1	2
7	8	9

TARTALO  
Plaza zaharra, 10. Tolosa

**K Komikia****Nando**

## Udazkena

**» Uzturretik**

Iratxe Etxebeeste

**U**dazkena, udagoiena, larrazkena: gauzak udazkentzen diren aroa.

Hostoak horitzen eta landareak moteltzen hasten diren garaian, langileak ilunetan irten eta ilunetan itzultzen diren sasoiak datorrenean, tximinietatik lehenengo keak ageri direnean, adituak depresioaz hitz egiten hasten dira.

Aldizkariak gomendioak ematen dizkigute, eta irratiari keku dira, betiko martxa ezin harturik gabiltzalako guztiok.

Udazkeneko tristura deitzen diote.

Nerudak ere udazkenari heriotza edo bukaera ukitua eman zion poemetan: «Igaro da galburuen ordua./Orain eguzkia/bizkortu bezala egin da./ Bere ezpain epelek inguratzen naute/tximeleta han-

hemenka dabil/han-hemenka/ eta desagertu egiten da».

Baina egia da, eta badakigu, udak ezin duelabete iraun.

Udazkena da, ondo begiratu ezkerena. Kolore guztiak dakartzatza, berdetik hasi eta marroiraino doazen basoetan. Bestalde, garaia da behar badagure baitan eta etxe-koekin bildu-bilduta egoten hasteko ere. Udazkenak aukera hori eskaintzen digu. Intimitatea, arratsalde luzeak eta asperdura onak dira izpirituarentzat.

Ez gaituzte hezi ezer egin gabe, begira egoteko -kontzientzia txarrara sartzen zaigu zerebroaren atzeka atetik-, baina bizitzako une aberasgarrienetako batzuk haize epeleko iluntze luzeetarako izan ohi dira, zereginetatik bueltan.

Udazkena elkarri entzuteko aroa izatea nahi nuke nik, inozo honek, Euskal Herrian ere bakea eta eskubideak, biak, orri berdea eta hosto lehorra bezala, gero eta ozengago eskatzen ari garen kurtsu hasiera honetan.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

## Larunbateroko azokara euria etorri da udazkenarekin batera

**Tolosa** » Adituen esanetan ondorengo egunetan perretxikoak biltzeko aukera izango da.

PABLO ALBERDI

Euria udazkenarekin bat etorri zen atzo Tolosako azokara, giroa zertxobait apaltzera. Hala ere, eguerdi aldera ikusitako erosleko-purua ez zen makala izan, eta goizaren bukaera alderako izandako salmentak ez ziren txarrak izan.

Eskaerak puri-purian egoteak asko laguntzen du honetan. Babarrun berri asko dago postuetan, bai lekatan, baita aletuta ere. Hauekin udako barazki asko zeuden oraindik; tomatea, Ibarraok piparrak, pipar berdeak, letxuak, kalabazak edota espinakak. Aipatzekoa da egun hauetan daukagun fruta zerranda. Mota askotako sagarrak daude aukeran, baita udareak, pikua, aranak, kiwiak, gaztainak eta urrak ere. Besteren artean.

Datuzen egunetan, eta euriaren laguntzarekin perretxikoak hazta espero dute jakitunek, eta ia esan genezake azokan ere ikusiko ditugula. Atzo dagoeneko aurtengo lehenengo kuletroak ikusi genituen, hori bai, kanpokoak.

### » ATZOKO AZOKA

#### BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Ziklamena	5,50	2,00
Menta	1,50	6,00
Zainzurria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Berberena	3,00	-

#### BERTAKO PRODUKTUAK Perretxikoak

Ziza horiak	18,00	-
Kuletroa (Kanpokoak)	35,00	-
Onddoak	20,00	-

#### Fruta

Kiwiak	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurrea	2,50	4,00
Udarea	1,00	-

#### Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-
Porrua	1,50	3,00

#### Barazkiak (Kiloa)

Tipula berria	1,50	-
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,25	4,00
Ilarrak	10,00	12,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	4,00

## Etiket bi pausutara dugun altxorra



### » Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga  
Biologia

Ingurumena, ekosistemak eta biodibertsitatea. Hauek dira hitzen azken moda, hauek dira aurreko hizkuntzen moda-lekuetan cool-enak diren hitzak. Oso ponpoxoak diren arren, sarritan ez dira geure neurritik egindakoak, jakinduria kontua ala desinformazioa ote?

Hiru gai hauetatik, azken boladan behintzat, asko hitz egiten da, baina sarritan urrunekotzat jotzen ditugu gai hauek, gugandik milaka kilometrotara egongo balira bezala, ez dakigu ordea gure etiketik pauso batera ere badaudela «ekosistemak», badagoela «ingurumen» batetanola ez, gero eta exkaxagoa dela GEURE «biodibertsitatea».

Ez, ez da Amazoniako biodibertsitate kinka larrian dagoen biodibertsitate bakarra, geure basoak ere ez daude festetarako!

Gaurko gizartean (National Geography-en eragingatik ziurrenik), euskaldun arunt batek gehiago daki Afrikako sabanan dauden espezieez, bere etxeko leihotik ikusi ahal dituen baino. Froga dezagun galdera batekin: zer ehizatzen du gepardo batek? Ziurrenik, irakurleen %80ak badakiela erantzuna. Hurrengo galdera: nolako itxura du ipurtatsak? Seguru nago irakurleen %80ak ez dakiela erantzuna.

Ipurtatsa, gaur egun maskota moduan erabiltzen diren huroi-en ahaide basatia da, gure etiketik kilometro gutxira dauden basoetan bizi den ugaztun ertain bat da, oso usain txarra ekoizten duena (hortik izena).

Gepardoetaz berriz ez dut informazio berririk emango, izan ere, oso ondo dakigu zer jaten duten,

zenbat kume dituzte urtean eta zenbateko abiadura harrapatzen duten lasterka.

Sarritan etortzen zaizkit neutre lehengusu lehengusinak erabat aztoraturik, telebistan kakalardo afrikar borrokalari bat ikusi dutela esane eta, arrak elkarrekin «presing catch» borroka egiten dutela beraien adar erraldoiekin. Aztoramendutik harridurara igarotzen dira, nola gure basoetan harizti zaharren enborretan, antzeko kakalardoak ere badaudela (txikiagoak, noski) aipatzen diedanean eta alboko basora udaberrian joan bagara, enbor gainetan sarritan indibiduo arrak elkarrekin borrokan ikusi ahal ditugula.

Beste batzuetan, Hego Amerikako tarantula sagujale baten bide bat erakusten didate: tarantulatza hark sagutxo ahul bat ehizatu eta txiki-txiki egin ostean, poliki poliki, mokadutxo gozatu, jan egiten du kameraren aurrean. Aktoetarako balio zuen tarantula erraldoi etsu hark!

Begirada gaizto batekin galdeztu didate ea ba al den hemen inguruan tarantula hau hobetzen duenik. Bai noski! Euskal Herriko humedaleetan badugu *Armiarma arantzalea* deritzen araknido bat, uraren gainean bere hanken gainean unti bat bailitza flotatzen duena eta azpitik igarotzen zaizkion arrainak harrapatu eta jan egiten dituzena. Hurrengo asteburuan, azaldu Leioako unibertsitatearen alboan dagoen humedalera, bertan behatu daiteke armiarmahau.

Harrigarria, ikusgarria eta zoragarria aurkitzeko ez daukagu kanpura begiratu beharrik, etxe alboan ere majina bat gauza harrigarri aurki ditzakegu.

Gaurtik aurrera bokazio dibulgatzailea duen biologari ximple honek, neuk, gugandik pausu bitarra dugun biodibertsitatea gerturazten saiatuko naiz, gertu ditugun ekosistemak berriz emango dizuet eta geure ingurumenatuz zerbait gehiago jakiten lagunduko dizuet, izan ere, monastegiak bezala, hau ere gure «patrimonio kulturala» delakoan nago.

## Gutunak

EAJk prezio altua ezarri du enplegurako politika aktiboen transferentziaren truke. Lehenik, azken lan-erreformaren onarpena lagundu zuen, espainiar Kongresuan abstentzioa izan zelako bere botua; erreforma horrek enpresarien boterea indartzen du eta langilegoaren aurkako eraso berri bat da. EAJk erraztu eta merketu egin ditu kaleratzeak eta, argi dago, enplegua sortzeko edo bere kalitatea hobetzeko neurri eraginkorrik lortu gabe.

Eta orain, EAJk 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorra hitzartu nahi ditu PSOErekin. Hurrela Rodriguez Zapaterok legealdia agortu ahal izango du, hauteskundeak aurreratzeko arriskurik gabe.

Akordio honek ere eragingo du kalterik. PSOEren exekutiboak 2011ko aurrekontu proiektua datorren ostiralean aurkeztea aurreikusuten da. Baina jada jakina da proiektu horretan 2010eko aurrekontuarekiko %7,7ko aurrekontu jaitziera esakoz dela, espainiar gobernuak ezarritako gehieneko gastuaren ondorioz.

Aurrekontu murrizketa berri honek (uda aurretik dekretutatuak gastu publikoaren murrizketei gehituta) zerbitzu publikoak eta gastu sozialak okertuko ditu, ekonomia berriz eroriko da eta lan egoera okerragoa da, ekarriko duen lanpostu galerarekin. Baina momentu honetan badirudi elite ekonomiko eta politikoa arduratuagoak daudela defizit publikoaren murrizketa obsesiboarekin.

Enplegurako politika aktiboei dagokienez, komenigarria da goratzea gai honetan EAEk duen autogobernu maila Afrikan espainiar koloniek duten berbera dela; eta, hala ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako langabezia tasa %10 inguruan dago, hau da, espainiar batzbesteko tasaren erdian. Kontutan izan behar da gainontzeko autonomia elkarrekin transferituak dituztela enplegurako politika aktiboak.

Aurreikusitakoa da poz eta ahasan adierazpenak entzungo ditugula kompetentzia traspaso honen ondorioz hainbat esparrutatik. Garaia da azzimarratzeko langabezia murrizketan izango duen eragina minimoa izango dela, besteak beste enplegurako zerbitzu publikoek eraginkortasunik ez dutelako (sinatzen diren kontratuen zati oso-oso txikian hartzen dute parte).

Bestalde, EAJk uko egin dio pa-

kete berean enplegurako politika pasiboak sartzeari. Hauek, balizko transferentziak, aukera emango luke langabeziagatiko prestazioak deszentralizatu kudeatzeko. Transferentzia honek inoiz ez luke onartuko langabeziagatiko babesa arautzen duen araudiaren inguruan erabakitze gaitasuna (prestazioak eskuratzeko baldintzak, iraupena eta horien zenbatekoa).

Erabakitze gaitasuna ez da errebendikazio abstraktu edo definitu gabea. Egungo marko juridiko-konstituzionalak Estatuaren zatitza gortetzen ditu Seguritate Sozialaren oinarriko legedia eta erregimen ekonomiko eta lan legediaren arloko kompetentzia eskusiboak. Honengatik, eta ez beste arrazoi batengatik, ukatzen zaigu enplegu politika propio eta integral bat diseinatu eta artikulatzeko gaitasuna. Hau da gaur egungo markoaren defizit estrukturala.

Nolanahi ere mugatua den marko bat, bertan euskal errealitate ekonomiko eta sozialari erantzun eraginkor emateko beharrezko instrumentuez hornitzea aukera kokatzea galeratzen diguna.

Urteak dira Euskal Herriaren agente politikoa eta sindikal askok bat egiten dugula analisi honekin. EAJk, berriz, Estatuaren potentzialtasunak aztertzen jarraitzen du. Estatuarekin beteazteko gai ez dela izan onartu gabe (hogeita hamar urtez indarrean egon ondoren 37 kompetentzia transferitu gabe daudelarik) eta, batez ere, euskal gizarteak behar duen eta eskatzen dugutako gai izan gabe. EAJk bizkar eman die bere jarrearekin ezarritako posible egin duten erreformari, ekainaren 29ko greba orokorren bidez uko egin zien euskal langileei eta orain berriz egiten dute, Euskal Herriarentzat agortua dagoen Estatuaren bidea transferentzia honen bidez berpizten saiatzen ari direnean. Estatuaren bidea da langileentzako oinarrikoak diren gaiak Madrilan dagoen gobernuak erabakitzea baitmentzen duen tresna nagusia, euskal agente sozialaren borondatek kanpora.

Azkenik, tamalgarria da operazio honetan Patxi Lopezen exekutiboak jokatutako papera ikustea. Bi udaretan inolako legitimitate demokratikorik gabeko lehendakari izatetik EAJk lortutako akordioa sinatzeko arduradun den lehendakari titere bilakatu da.

**Mari Mujika.** LAB-en ordezkarria.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Irakaslea.** Ingeles irakaslea behar da arratsaldetan lan egiteko. Deitu 943 67 24 48 telefono zenbakira.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



# Herriko neska-mutilak sokaren bueltan dantzan

**Jaiak** » Haur eta gazteen eguna ospatu zuten atzo Iruran. Bartzelonako Colla de Gitanes dantza taldeari ongi etorri beroa egin zieten.

## ERREDAKZIOA

Atzo irurarrek bigarren festa eguna izan zuten eta haur eta gazteen eguna ospatu zuten. Aldaban berri, hasi baino ez dituzte egin.

Iruran haurrentzako euskal festa eta jokoak izan ziren pilotalekuan. 13:00ak aldera, Udal ordezkariek, ongi etorri beroa egin zieten Bartzelonako Canovelles herriko Colla de Gitanes dantza taldeko ordezkariei. Jarraian, mutilen txanda izan zen eta plazan dantza-soka dantzatu zuten. Haur eta gazteek bazkaria izan zuten.

Haurrentzako txu txu tren eta puzgarriak izan ziren eta Poxpolo eta konpainia pailazo taldea. Arratsaldean neskek dantzatu zuten dantza-soka. Sagardo dastaketa-oren ostean afaria izan zuten.

Gauean, Colla de Gitanes dantza taldeak dantza ikuskizuna eskaini zuen. Eta bukatzeko, goizaldeko ordu txikiak arte, Red Veil, Governors eta Kerobia taldeen kontzertua izan zen.

## Gaur Idoia Etxeberria harri-jasotzailearen txanda

12:00etan Gorritiren Abereak izango dira haurrentzako. 17:30ean, Idoia Etxeberria harri-jasotzaile gaztearen marka saiakerazango da. 137 kiloko harri errektangeluarra 5 minutuko txanda bakarrean altxatzen saiatuko da.

19:00etan bertso saioa izango da Lujanbio, Alberdi, Soto eta Sarriegirekin. Gaiak jartzen Mendiluze ariko da. Eta 20:00etan erromeria Dantzadi taldearekin izango da.



Txikienek, baseritar jantziekin, euskal festa eta jokoak egin zituzten pilotalekuan. I. TERRADILLOS

## Aldaban ere jaietan

Atzo bota zuten txupinazoa eta sagardo dastaketa izan zuten. Ondoren, zahagiardoa egin zuten bertsolariek lagunduta. Eguna bukatzeko, pilotalekuan erromeria izan zuten Elustondo anai-arrebekin.

Gaur, Meza Nagusiarekin hasi dute eguna. 12:00etan III. Aldabako Txirindulari Igoera Herrikoia izango da. 14:30ean, guztiak mahaiaren bueltan elkartuko dira eta Herri Bazkaria egingo dute. 18:00etan, Herri Kirolak ikusteko aukera izango da. Jarraian, Ostolaza eta Andonegi trikitilarietako erromeria.



Neska eta mutil, herrian barrena dantzan ibili ziren. I. TERRADILLOS

**ZURE ABONUA, GURE KEMENA**

LAGUN ARO GBC  
SAR ZANITZ TALDEAN  
Euzko Lehiaketa 2010-11  
WWW.ZUREABONUA.COM

LAGUN ARO SAN SEBASTIAN (PIZARRA BARRIO)

LAGUN ARO GBC  
GIPURKOA  
EL OMBRE ANZURI

## » EGITARAUAK

### Aldaban, gaur

- 11:00. Meza nagusia.
- 12:00. III. Aldabako Txirindulari Igoera Herrikoia.
- 14:30. Herri bazkaria.
- 18:00. Herri kirolak.
- Jarraian. Erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilarietako.

### Iruran, gaur

- 12:00. Gorritiren abereak.
- 17:30. Herri kirolak plazan: Idoia

Etxeberria harri-jasotzaile gaztearen marka saiakera berria, 137 kiloko errektangeluarrekin.

■ **Ondoren.** Arrospide eta Muger-tza II.a, Mujika eta Otaegiren aurka aizkoran.

■ **19:00.** Bertso saioa Maialen Lujanbio, Julio Soto, Uxue Alberdi eta Aitor Sarriegi bertsolariekin eta gaiak jartzen Aitor Mendiluze.

■ **20:00.** Erromeria Dantzadi trikitilari taldearekin.

**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO I.I.I. INSTITUTUA

FORMAZIO OKUPAZIONALA

KANTARDA - CURSO	ORDUK	HASIA
FABRIKAZIO MEKANIKARAKO LAGUNTZA ERAGIKETAK (LANBIDE)	428	06/19/2010
ARRO ELEKTRIKO SOLDEATZAILA (LANBIDE)	311	06/19/2010
OFFICE TEKNIKARIA (SARBIDE)	230	18/19/2010

Matrikula e informazio: Telefono 943 88 11 47  
Berrita loka, 17 - 20400 TOLOSALDEA  
E-mail: [matricula@tolosaldea.com](mailto:matricula@tolosaldea.com) Web: [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

## E Elkarrizketa

UNAI ONSALO ▶ Pilotaria

**Areso**» Pauen jokatu den mundialean, frontoi osoan eskuz banakako modalitatean lehiatuko da; oraindik erabat osatzeke dago behatzeko lesiotik.

JONE GOROSTARZU

Urriaren 10era Frantziako Pau herrian egingo den Munduko Euskal Pilota Txapelketan izango da Unai Onsalo (Areso, 1985). Frontoi osoan eskuz banakako modalitatean jokatu du, eta, Txapelketarako bi asteren faltan, kezkaturik dago bere ezker esku behatz potoloa dela eta.

**Horretarako txartela lortu arren, ezin izan zenuen Joxean Tolosa Txapelketako finala jokatu, irailaren 12an.**

Aste horretako asteartearen min hartu nuen behatz potoloan entrenatzen ari nintzela eta asteburuan ezin izan nuen finala jokatu.

**Jada hobeto al daukazu behatza?**  
Beno, orduan baino hobeto bai, baina oraindik ere hazita dago. Aste hau ere errehabilitazioan pasa dut eta bihar medikuarengana noa, ea zerbait egiten dugun handitu hau jaisteko.

**Urriaren 10era Pauen izango zara, Munduko Euskal Pilota Txapelketan. Nola ari zara prestatzen?**

Entrenamenduak betiko berdinak dira. Astean bi aldiz frontoian aritzen gara. Nik ez dut entrenatzerik izan ezkerreko behatz hau dela eta, eskuinarekin aritu naiz pixka bat. Baina entrenamenduak ez dira aldatzen.

**Nola ikusten duzu zure burua Txapelketari begira?**

Egia esan, ez dakit ez ongi nagoen edo gaizki nagoen, ez baitut entrenamendu serioerik egin. Ez dakit ezker eskuak nola erantzungo didan eta une honetan duda horrekin noa Munduko Txapelketara, nola egongo naizen jakin gabe.

**Nola izan zen Paurako aukeraketa prozesua?**

Txapelketa honetarako pilotari batzuk hartzen dituzte eta bizpahiru entrenamendu egiten dituzte. Horren ondoren, batzuk baztertu egiten dituzte. Gero beste bi entrenamendu zorrotzago egiten dira, eta han jada nortzuk joango diren erabaki eta egindako taldearen zerrenda ematen dute.

**Noiz jakin zenuen zuk Munduko Txapelketa jokatu zenuela?**



JONE GOROSTARZU

# «Txapelketa gogorra izango dela uste dut»

Ni hasiera batean kanpoan geratu nintzen lan kontuak zirela eta. Baina orain Gorka Estebanek debutatu egin duenez niri bigarren aukera eman didate.

**Zure Lehengo Munduko Txapelketa al da aurtengoa?**

Bai, lehenengoa da niretzat.

**Zuk eskuz banaka jokatu duzu, frontoi osoan. Nola antolatzen da Txapelketa?**

Bi talde desberdin daude. Gurean Espainiaz gain Amerikar Estatu Batuek eta Frantziak jokutzen dute. Bestean beste batzuk daude, Mexiko eta... Talde bakoitzetik bi pasako dira finalerdietara, eta ondoren irabazleen artean jokatu da finala, azken egunean.

**Nolako maila egongo dela uste duzu? Eta nor izango ote da aurkaririk gogorrena?**

Frantziarekin jokutzen duenaren aurka aurtien jada bi aldiz jokatu dut buruz buru. Mexikorekin, berriaz, profesional izandako bat dago, Medina, eta uste dut hura izango dela faborito. AEBekin ere

edozein txapelketa bezalako da niretzat. Uhartek, ezagutzen dut eta hori ere maila politiko pilotaria da. Nik uste dut Txapelketa gogorra izango dela.

**Ze garrantzi du zure ibilbide profesionalean Munduko Txapelketan izateak?**

Beste txapelketa bat gehiago da oraingo hau. Orain ez neukan besterik, libre nengoen. Pauen jokatzeko aukerarekin didate eta beste

edozein txapelketa bezalako da niretzat.

**Aurtin pilota dela eta Euskal Herriko kanpo ibili zara, ezta?**

Bai, aurtengo urte osoa Euskal Herriko kanpo pasatu dut. Orain arte beti Euskal Herrian jokatu nuen, baina aurtien Almeriaren izenean jokatzeko aukera etorri zizaidan, eta urtea horretan pasa dut. Esperientzia ona izan da, partida jokatzear gain asteburu pasa

polit bat egiten genuen. Hiru joatzen ginen, giro polita dugu elkaren artean eta oso ongi pasa dugu.

**Amerikako Estatu Batuetan ere egona zara...**

AEBetara txapelketa bat irabazteagatik joan nintzen; han ere bi partida jokatu genituen eta aste bete pasa genuen. Egia esan, azken urte hauetan pilotarengatik, behintzat, bazterrak ikusten ari gara.

**Orain dela urte gutxi pilota utzi zenuen, baina gero itzuli egin zinen. Zer dela eta?**

Bai, urte eta erdi edo da berriro pilotan hasi nintzela, lau hilabete geldirik egin ondoren. Eskuetako arazoak nituen, eta horrez gain, ez

«Pilotarik gabe zaila zitzaidala bizitzea ohartu nintzen utzi nuenean; gozatzen dudalako ari naiz»

«Ez dut entrenatzerik izan ezkerreko behatza dela eta; eskuinarekin aritu naiz pixka bat»

nuen neure burua motibatuta berriaz ikusten eta pixka bat aspertuta nengoen. Baina har hori piztu zitzaidan, berriro hasi nintzenetik emaitzak ere onak izan dira eta orain gaztetan bezalako ilusioarekin nago berriaz.

**Zer ematen dizu pilotak?**

Ez dakit zer ematen didan... kirola egiteko aitzakia bat. Ongi nagoenean eta lesiorik eta ez dudanean, gainera, gozatu egiten dut, eta utzi nuenean konturatu nintzen pilotarik gabe bizitzea zaila egiten zitzaidala. Gozatzen dudalako ari naiz, gehienbat.

**Bukatzeko, Munduko Euskal Pilota Txapelketa itzuliz, zein da zure buruari jarritako helburua?**

Helburua betikoa da, irabaztea. Baina beno, Txapelketa polit bat eginez gero eta barregarri geratu gabe itzuliz gero pozik geratuko naiz.

**Euskal Kantuzaleen Elkarte**  
943 593 392 / 669 549 357  
posta@kantuzale.net  
www.kantuzale.net

**Izena emateko azken eguna**

**Urriak 22**

informazioa eskatu, animatu eta deltu!

**BEROGUZKI S.L.**

Hargintza • Beroak eta Gasa • Aire egokitua  
Eguzki jabetza • Bateria-erremak • Gaxoi inbultsiotzak  
Klimatizazio baldarrik

Jai zoriontsuak opa dizkizue Irurar guztiei!

Tel. 7 460 91 22 22  
Fax. 943 414 400  
Beroguzki@beroguzki.net  
Mugaketa: 94 30111 9434





## Gaztetxoenei zuzenduriko eguna Kultur Astean

**BIDEGOIAN** ■ Bidegoiango Kultur Astearen barruan, Zurrumuru antzerki taldearen *Pantxika eta Txinparta*, ederra zala-parta antzezanaz gozatzeko aukera izan zuten herriko gaztetxoek euren gurasoekin batera, Bidaniako frontoian. An-

tzerkiarekin ederki igaro eta barre nahikoa egin eta gero, txokolatea banatu zieten guztiei. Arratsalde osoan zehar izan zuten non eta nola denbora pasa, antzezanaren aurretik marrazki lehiaketan hartu baitzuten parte. Denera, 43

gazte aritu ziren margotzen, bost mailatan banatuta adinaren arabera. Gaur izango da Kultur Astearen azken eguna, eta ederki amaitzeko azoka izango dute Goiazko plazan goiz osoan zehar. I.T.

**berria** Irudikatu mundua **BERRI**arekin

**Gozatu berria**ekin

Egin harpidedun eta jaso **ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.**



**Ezaugarriak:**

- Kamera digitala, 9 megapixelkoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren berretzen ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, +8 argazkiak handitzeko
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



**Ezaugarriak:**  
samsung LE32C450

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIaren harpidedunen artean, Elektraren eskutik.

**elektra**  
www.elektragaiauk.com

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, eta DNI+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI hargune bat, PC-ko sarrera bat eta erokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidedun@berria.info



Mendi martxan ekitaldi politikoa burutu zuten atzo, HITZA

## Jon Anza eta Mikel Zalakain omenduko dituzte Gudari Egunean

### ERREDAKZIOA

Gudari Egunaren bezperetan, atzo, mendi martxa burutu zuten 50 lagun inguruk, «urtero legez eskualdeko 17 gudarici omenaldi goxoa egiteko». Ekitaldia ere egin zuten. Bertan esanak, ohar baten bidez igorri zituzten: «Urte luzeetan luzatzen ari den gatazka pairatzen du Euskal Herriak, eta armen bidez zapaldua izaten ari da; egoera honen aurrean sortu zen ETA erakundea, Euskal Herriaren alde armen bidez ere borrokatzeko presuntasuna zuten euskal seme alabez osatua. Duintasuna eta eskuzabalatasuna oinarri, bizitza ematerainoko konpromisoa hartuz, ehunka izan dira bide horretan aritu diren

euskal herritarrak». Hain zuzen ere, biharko eguna «bide horretan galdu ditugun borrokalariak oroi-tu eta omentzeko» eguna dela dio oharrak. Aurtengoan, bereziki, aurten hil diren Jon Anza donostiarra eta Villabonako Mikel Zalakain omenduko dituzte, eta besarkada bat bidali nahi diete haien eta gainontzeko gudarien senideei.

Azkenik, gudarien borrokak ekarri duela herri hau abagune politiko honetara eta borrokak soilik emango duela herri hau askatasunera adierazten du oharrak.

Bestalde, bihar, Gudari Eguna izaki, manifestazioa egingo dute, 20:00etan Tolosan, eta bertara gonbidatzen dituzte herritarrak.



## Kanturako euria ez baita traba

**TOLOSA** » Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, hileroko hitzorduari hutsik egin gabe, Tolosa Kantariko lagunak kalera atera ziren atzo euren kantuekin larunbat goiza

alaitzera. 40 lagun inguru elkartu ziren Tontokalen eta Alde Zahar osoa gurutzatu zuten geldialdiak eginez, hainbat musikariren laguntzarekin. L.TERRADILLOS



## 110 auzotar mahaiaren bueltan

**URKIZU** » Alurtxiki elkartearen hirugarren urteurrena dela eta, bazkaria egin zuten atzo Urkizun. Auzoarekin lotura duten 110 lagun elkartu ziren bertan, eta paella eta txuleta ja-

nez giro polita sortu zen mahaiaren bueltan. Bestalde, datorren ostegunean, hilaren 30ean, Idoia Sanchez izango da ipuinak kontatzen, 17:30etik aurrera. U.



Guardia Zibilak bi lagunak eraman zituen unea. ASKATU.ORG

## Guardia Zibilak bi lagun eraman ditu, autobus batetik

**Villabona** » Atzo eguerdian gertatu zen; emakumezkoa eta gizonezkoa jaitsiarazi egin zituzten autobusetik.

### ERREDAKZIOA

Guardia Zibilak bi lagun eraman zituen atzo eguerdian, Villabonan, eskualdeko autobus batean zihoa-ze7la, bertatik aterarazita, Amnis-

tiaren Aldeko Mugimenduak jakinarazi zuenez.

Iturri horren arabera, autobusetik jaitsiarazi eta eraman egin zituzten. Bost patrol zeuzkaten zain. Aurretik Guardia Zibilak herriko sarrerak itxita eduki zituen kontrolen bidez. Eraman zituztenetako bat gizonezkoa eta bestea emakumezkoa dela zehaztu dute Amnistiaren Aldeko Mugimendutik, baina ez dute oraindik argitu nortzuk diren.



AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

# Kalitatezkoa

<b>EDARIAK</b> 	<b>ELIKAGAIAK</b> 
<b>JANTZIAK</b> 	<b>DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...</b> 
<b>ESKULANGINTZA</b> 	




**www.euskalherriko plaza.com**

SARTU ETA EROSI GUREAN





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tososaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tososaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tososaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tososaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tososaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tososaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tososaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tososaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tososaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tososaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Azoka bereziak

- **Alegia.** 11:00etatik 14:00etara.
- **Asteasu.** 10:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:00etara.
- **Bidegoian.** Goiz guztian zehar.
- **Ibarra.** 10:00etatik 14:00etara.

### Bilkura

- **Tolosa.** Ohiko Osoko Bilkura egingo dute hilaren 28an, astear-tean, udaletxean. Goizeko 08:00etan izango da Bilkura.

### Bilera

- **Tolosa.** Orixe Institutuan kurtso hasierako bilera, guraso eta ikasle-entzat. DBH1eko eta DBH2koen-

tzat, hilaren 27an, astelehenean, izango dira. DBH3 eta DBH4koen-tzat hilaren 28an eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailakoentzat hilaren 30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



### MALLORKA

Eider Arana: «Mallorkako Cabo Formentorren ateratako argazkia: Cabo Formentorretik eguzkia nola ezkutatzen den ikustea, benetan da ikusgarria». EIDER ARANA

## A Agurrak



### Zorionak Itsaso!

**Itsaso Aggües Elola (Anoeta).** Bihar 5 urte, muxu handi bat familia osoaren partez.



### Zorionak!

**Oier Gastesi Tolosa.** Bihar 5 urte. Zorionak eta muxuak etxekoan partetik eta batez ere, Uxue eta Eneritzen partetik.



### Urte Askoan!

**Ricardo Navas (Tolosa).**

Ondo pasa eguna. Etxekoan eta bereziki Aiurren partetik.



### Urte Askoan!

**Urki Garro Ugartemendia (Irura).** Gaur 3 urte. Zorionak Alaia, aitaixo eta amatxoren partez.

argazki lehiaketa

# XII. HITZA Argazki Lehiaketa

Animatu eta parte hartu!

**NORA BIDALI?**

argazkiak@tososaldeko-hitza.info helbide elektronikora  
Irailak 30 arte

**HITZA** udarako argazki lehiaketa

**1. Saria**

Eako Argazki Lehiaketa

**2. Saria**

Getariako Argazki Lehiaketa

**3. Saria**

Gorrotzeko Argazki Lehiaketa

Parte-hartzaile eta irabazleak HITZako materialerik gabe.